

Gertu Kultura Bizkaia sortu da, gizarte-erakundeen eskutik kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen kulturarako sarbidea ematen dien programa soziokulturala

- Gertu Kultura Bizkaia abian da Gertu Kultura sarea Bizkaian osatzen duten 22 kultura-programatzailerekin eta 33 gizarte-erakunderekin.
- Aurkezpenean parte hartu dute Leixuri Arrizabalaga Arruza Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak, Amaia Antxustegi Ziarda Gizarte Ekintzako foru diputatuak, Gonzalo Olabarria Villota Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza zinegotziak, Nora Sarasola BBKko Gizarte Ekintzako zuzendariak eta Marta Font Gertu Kulturako zuzendariak.
- Ekimena **BBK Banku Fundazioak** bultzatu du lurralde historikoan, '2024-2030 Kultura Inklusiboaren aldeko Estrategia'-ren baitan, eta **Bizkaiko Foru Aldundiaren** eta **Bilboko Udalaren** babesa du.
- Inaugurazioko jardunaldian 2025erako programazioaren aurkezpena eta "Oztoporik gabeko kultura" mahai ingurua izan da, Bizkaiko kultura- eta gizarte-sektoreko adituen parte-hartzearekin eta "HAIZEA" emanaldiarekin, Raket Rodríguez Ruiz (Arymux) pieza inklusiboa Zeinudantzarekin.

Astelehena, 2025eko maiatzaren 12a



Gonzalo Olabarria, Amaia Antxustegi, Marta Font, Leixuri Arrizabalaga eta Koldo Bilbao. Argazkia: Asier Camacho

Babesleak / Con el apoyo de:

Gaur inauguratu da Bilboko BBK Aretoan **Gertu Kultura Bizkaia**, gizarte-erakundeen eskutik kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen kulturarako sarbidea errazteko batu diren kultura-programatzaileen sarea. Irabazi asmorik gabeko ekimen honen babesle dira: BBK Banku Fundazioa '2024-2030 Kultura Inklusiboaren aldeko Estrategia'-ren baitan; Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila eta Gizarte Ekintza Saila, eta Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza arloa. Sare honen helburua da kulturaren bidez pertsonen bizi kalitatea hobetzea eta pertsona guztiei kultura eskuratzeko eskubidea bermatzen laguntzea.

Gertu Kulturaren inaugurazioak konpromisoaren, eraldaketaren eta inpaktu sozialaren eragile gisa kultura sustatzeko ekimen baten hasiera markatu du Bizkaian. Jardunaldian kultura- eta gizarte-arloko hainbat pertsona gailen eta adituk parte hartu dute, baita honako hauek ere: **Nora Sarasola** BBK Gizarte Ekintzako zuzendariak, **Leixuri Arrizabalaga Arruza** Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak, **Amaia Antxustegi Ziarda** Gizarte Ekintzako foru diputatuak, **Gonzalo Olabarria** Villota Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantzako zinegotziak eta **Marta Font** Gertu Kulturako zuzendariak.

Nora Sarasola BBK Gizarte Ekintzako zuzendariak bere hitzaldian adierazi duenez, “Iritsi da garaia lurraldeko kultura-eskaintzaz jende guztiak goza dezan bermatzeko, batez ere oraindik kulturara iristeko oztopoak dituztenek. BBK Banku Fundazioak kultura-sektore osoa inplikatu nahi dugu inklusiorako ezinbesteko konpromiso horretan. Horregatik, Gertu Kultura Bizkaia bultzatu nahi izan dugu, ez bakarrik plataforma gisa, baita kulturaren paradigma berri baterantz emandako aurrerapauso handi gisa ere”.

Bestalde, Amaia Antxustegi Gizarte Ekintzako foru diputatuak adierazi duenez, “Bizkaiko Foru Aldundian uste dugu kultura ez dela soilik gozamenerako gune bat, baizik eta inklusiorako zubi bat, eraldaketa sozialerako bitarteko bat eta ongizaterako tresna bat, kulturarako sarbide unibertsala bermatzen duen gizarte bat, zabalduz gabe, gizarte bidezkoagoa, sortzaileagoa eta gizatiarragoa delako”.

Bestetik, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Leixuri Arrizabalaga Arruzak azpimarratu duenez, “Aldundian dugun helburu nagusietako bat da kulturaren ontasunak gizarte osora zabaltzea eta hurbiltzea, bere ahalmen eraldatzaileagatik. Hori lortzeko ezinbestekoa da kultura-eskaintza benetan irisgarria izatea. Eta prozesu hori oinarritik hasi behar da: sortze-prozesutik bertatik. Kontua ez da oztopo fisikoak edo ekonomikoak ezabatzea soilik; ikuspegia ere aldatu behar da, eta inklusioaren kontzeptua balio ukaezin gisa hasieratik integratu”.

Gonzalo Olabarria Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza zinegotziak, bestalde, nabarmendu duenez, “Pertsona guztientzako kultura irisgarria lortzen laguntzen duten ekimenak garatu behar dira. Gure konpromisoa da kolektibo guztiek Bilbon garatzen diren kultura-jardueretarako sarbidea eta parte-hartze aktiboa izatea bermatzea, haien egoera soziala, ekonomikoa, kulturala, adina, gaitasunak eta abar edozein direla ere. Bilboko Udalaren iritziz, aniztasunarekiko arreta ardatz nagusia da gizarte plural baten ikuspegiak hartzeko eta erakartzeko gai den kultura bat sortzeko, gizarte-kohesioa indartzea ahalbidetuko duena”.

Oztopoak kentzea, sentsibilizazioa eta formakuntza

Gertu Kulturak, kultura aldaketa sozialaren eragile gisa hartuta, kultura- eta gizarte-sektorearen arteko topagune egonkorrak sortu nahi ditu, kultura kolaboratiboa eta erronka komunei erantzuteko konpromiso sozial kolektiboa bultzatuta.

Babesleak / Con el apoyo de:

Horretarako, programak **hiru lan-ildo** lantzen ditu. Alde batetik, kulturara sartzeko oztopoak identifikatzen ditu, progresiboki horiek ezabatzeko helburuarekin, kulturako espazioen, erakundeen, mezenasen eta eragileen laguntzarekin. Horrela, programan parte hartzen duten kultura-programatzaileen sareak eskaintzen dituen aukeretatik abiatuta, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta ematen dieten eta haiekin lan egiten duten gizarte-erakundeek espazio eta esperientzia kultural irisgarriagoak dituzte, prezio murriztuetan, sarbiderako lehentasunarekin, eta kolektiboen beharrei entzutea eta erantzutea ardatz duen tratu pertsonalizatuarekin.

Aldi berean, programak **herriarren sentsibilizazioan oinarritutako bigarren ardatz bat** lantzen du, eta, horretarako, kanpainak, jardunaldiak eta topaketak sortzen ditu, gizarte-aniztasunari, gizarteko bazterkeria- eta kalteberatasun-egoerei eta kulturak haiei erantzuten laguntzeko betetzen duen zereginari buruzko ezagutzak ikusarazi eta sortzeko.

Kultura inklusiboago baterantz aurrera egiteko, **programaren hirugarren ardatz nagusia kultur sektoreari formakuntza eta laguntza ematea da**. Gertu Kulturak hezkuntzarekiko konpromisoa hartzen du, eta, urtean zehar, kultura-programatzaileei zuzendutako formakuntza eta lan-saioak sortzen ditu, gizarte-erakundeekin lankidetzan, irisgarritasunari eta aniztasunari buruzko lantaldeetatik eta formakuntzetatik abiatuta.

Formakuntzaren eta aholkularitzaren helburua da gizarte-aniztasunetik abiatuta praktika kulturalak diseinatzea eta sortzea, pertsona guztiek baldintza beretan kulturaz gozatzeko aukerak, testuinguruak eta baliabideak eskainita. Horren adibide dira goizeko saioak edo saio lasaiak edo irisgarritasun-neurriak gehitzea, besteak beste.

Gizarte Behatoki gisa jarduten du Gertu Kulturak, eta **ikerketa-ildoak** garatzen ditu beste eragile batzuekin lankidetzan. Gaur egun, Gertu Kulturaren ikerketa-ildoek honako hauek dituzte ardatz:

1. **Sarbide unibertsala** kulturara, **kultura-eskubideen** funtsezko osagai gisa
2. **Nahi ez den bakardadearen** aurkako **kultura**
3. **Osasuna** sustatzeko **kultura**

Gertu Kultura nori zuzentzen zaion:

Programa kalteberatasun-egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte- eta osasun-erakundeei zuzenduta dago, prebentzioaren zein zuzeneko esku-hartzearen eremutik.

- Desgaitasun intelektuala duten pertsonak: zentro okupazionalak, terapia okupazionalako zerbitzuak...
- Gaixotasun mentalaren ondoriozko arazo sozialak dituzten pertsonak: eguneko zentroak, klub sozialak
- Errehabilitazio komunitarioko zerbitzuak...
- Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonak
- Garuneko paralisia eta antzeko alterazioa duten pertsonak
- Urritasun fisikoa, entzumenekoa edo ikusmenekoa duten pertsonak kalteberatasun-egoeran.
- Adineko jendea: egoitzak, eguneko zentroak, bakardadeari aurre egiteko programak...
- Adikzioak dituzten pertsonak
- Askatasunaz gabetuta dauden pertsonak
- Pertsona migratuak, errefuxiatuak eta gutxiengo etnikoetakoak

Babesleak / Con el apoyo de:

- LGBTIQ+ kolektiboko pertsonak kalteberatasun-egoeran
- Haurrak eta nerabeak: CRAES eta zentro irekiak...
- Emakumeak: indarkeria matxistak eta kalteberatasuna
- Etixerik gabeko pertsonak
- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak: harrera-zentroak, gizarte-zerbitzuetako zentroak...
- Osasunaren arloko erakundeak
- Sindrome edo gaixotasunei lotutako senideen elkarteak

Etengabe hazten ari den sarea

Gertu Kultura sarea zabalik dago kultura-programatzaile guztientzat eta gizarte-erakunde interesdunek bat egin dezakete, etengabe eta urteko edozein unetan.

Gertu Kulturako parte-hartze dinamika erraza da. Gizarte-erakundeentzat doako tresna irisgarria da, eta bisita, sarrera edo esperientzia kulturala erreserbatu dezakete zuzenean, www.gertukultura.org webgunean eskuragarri dagoen plataformaren bidez. Plataforma horretatik abiatuta, zuzeneko harremana dute kultura-programatzaileekin. Programatzaileek prezio sozialean eskaintzen dute beren ohiko programazioa, eta jarduera bakoitzaren % 2ko edukiera erreserbatzen dute gutxienez. Plataforma horretan, gizarte-erakundeek, modu erraz eta intuitiboan, kultura-ekipamendu bakoitzaren irisgarritasun-neurriak ezagutu ditzakete, ordutegien, udalerrien eta diziplina artistikoaren arabera bilaketak egin ditzakete, irakurketa errazeko ekipamenduen informazioa eskura dezakete eta kolektiboen beharrak azaldu ditzakete.

Bizkaian, maiatzaren 12tik aurrera, hauek dira Gertu Kultura Sarea osatzen duten lehen 22 kultura-programatzaileak:

- BBK Banku-Fundazioa
 - BBK Klima
 - BBK Babesleak
 - BBK Sala
- Bilbao Orkestra Sinfonikoa - BOS
- Bilbao Udala
 -
- Bizkaikoa
 - Arkeologia Museoa
 - Arrantzaleen Museoa
 - El Pobal Burdinola - Muñatones Gaztelua
 - Euskal Herria Museoa
 - La Encartada Fabrika-Museoa
 - Ondare Aretoa
 - Rekalde Aretoa
 - Txakolingunea
- Astarloa Kulturgintza - Durangoko Arte eta Historia Museoa
- Euskadiko Orkestra
- Euskal Herriko Gazte Orkestra - EGO
- Euskalduna Bilbao

Babesleak / Con el apoyo de:

- Azkue Fundazioa - Euskararen Etxea
- Gernikako Bakearen Museoa
- Itsasmuseum
- Hamaika Kale Elkartea - Orduña Hiria Museoa
- Teatro Arriaga Antzokia

Programa hasteko, 33 erakunde, zentro, programa eta gizarte-zerbitzu daude Gertu Kultura Bizkaia-aren sarean:

- Apnabi Autismo Bizkaia
- ASPARBI Parkinson Elkartea Bizkaia
- APDISA Desgaitasuna duten Pertsonen Elkartea Santurtzi
- Aspaldiko Fundazioa
 - Aspaldiko Fundazioa
 - Aspaldiko Eguneko Zentroa
 - Aspaldiko Egoitza Zerbitzu Psikosoziala
- ASPACE Bizkaia
- Askabide
 - Eguneko Arreta Zerbitzua
- Basurto Eguneko Zentroa
- Bidegintza
- Bilbao Formarte
- Cáritas Bizkaia
 - Diapasón
 - Ekin
 - Etxepel
- EAPN Euskadi
- EDE Fundazioa
- Elkarbanatuz Elkartea
 - Hiranka 1
 - Baikaba
- Erain Elkartea
- Down sindromearen eta beste adimen urritasunen Fundazioa
- FEKOOR Desgaitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazioa Koordinakundea
- FEVAS Plena Inclusión Euskadi
- Fundación Vizcaína de Caridad
 - Residencia Conde de Aresti Egoitza
- Futubide Fundazioa
- Gaude Elkartea
- Gizakia Fundazioa
- Gorabide
 - Aisia eta Astialdia
- Izangai Elkartea
- Lantegi Batuak
- Lantegi Batuak Fundazioko zerbitzu okupazionala

Babesleak / Con el apoyo de:

- Randstad Fundazioa
→ Randstad Euskadi
- San Nikolas Zabalik
- UN Etxea

Gertu Kultura Bizkaia, horrela, Apropa Cultura sarean sartzen da. Programa hori Bartzelonako Auditorioan hasi zen eta, Katalunian 19 urteko ibilbidea egin ondoren, erreferentziazko sare inklusiboa da gaur egun. 150 kultura-programatzaile baino gehiago biltzen ditu, 3.170 gizarte-erakunde baino gehiago eta 260 udalerrri baino gehiago, kulturak pertsonak duintzen dituela eta kulturarako sarbidea bazterketarik egin gabe bermatu behar dela uste dutenak. 2021ean programa Balear Uharteetara zabaldutako zen, 2022an Madrilera eta 2023an Gipuzkoara. Azken lurralde horretan sareak zifra nabarmenak lortu ditu: 2024ko urtarrietik gaur egun, 3.744 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Gipuzkoan antolatutako 324 esperientzia kulturaletan, lurraldeko 36 kultura-programatzailearen konpromisoari eta 166 gizarte-erakunderen parte-hartzeari esker. Sareak egunez egun hazten jarraitzen du.



Marta Font, Gertu Kultura-ko zuzendaria programa aurkezten. Argazkia: Asier Camacho

2025eko programazioa

Programaren aurkezpena Gertu Kulturako zuzendari Marta Fontek egin du, eta Gertu Kultura Bizkaia-aren 2025erako programazioa aietu du.

Babesleak / Con el apoyo de:

Sareko Irisgarritasun kulturalari buruzko lehen formakuntza **maiatzaren 30ean** izango da, programan parte hartzen duen Bizkaiko kultura-sektoreari zuzendutako online saio batekin.

Gainera, **ekainaren 17an**, lehen formakuntza presentziala egingo da Bilboko **Itsasmuseumen**, kultur programatzaileei zuzendua, FEVAS Plena Inclusión erakundearen eskutik. Irisgarritasun kognitiboaren ezagutza eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen kulturarako sarbidea bermatzeko aukerak izango ditu ardatz.

Formakuntzek eta topaketek udazkenean jarraituko dute. Guztiak doakoak dira eta sareko pertsona guztientzat zabalik daude. Izen-ematea bizkaia@gertukultura.org helbidean egin daiteke.

Azkenik, “Oztoporik gabeko kultura” mahai ingurua izan da, Eztizen Esesumaga Bizkaiko Foru Aldundiaren Rekalde aretoko Hezkuntza eta Publikoen arduradunak moderatuta. Parte-hartzaileek, **Lucia Soria** FEVAS Plena Inclusión Euskadiko komunikazio eta irisgarritasun kognitiboko teknikariak, **Borja Pujol Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendari teknikoak**, **Idoia Pérez de Mendiola** Bizkaiko Caritaseko Gizarte Ekintzaren koordinatzaileak, **Iratxe Momoitio Astorkia** Gernikako Bakearen Museoko zuzendariak eta **Sonia Camara Pereña** Arrigorriagako Udaleko dinamizatzaile soziokultural eta Arrigorriagako Clown eta Pailazoen Nazioarteko Jaialdiko zuzendariak, beren ikuspegi eta esperientziak partekatu dituzte, kultura-programatzaileek eta gizarte-erakundeek pertsona guztien bitzita kulturala normalizatzen saiatzean aurre egin behar izaten dieten egoerari buruz.

Jardunaldiari amaiera emateko “Haizea” pieza aurkeztu da, Rakel Rodríguez Ruiz (Arymux) diziplina anitzeko artistaarena, Arymux konpainia inklusibo eta irisgarriaren zuzendaria eta Zeinudantza diziplina artistikoaren sortzailea, bere marka pertsonal bihurtutakoa.

Arymuxek arte eta kultura inklusiboa lantzen ditu, dagozkien hainbat adierazpidetan, eta ikuskizun propioak sortzen ditu. Era berean, artea eta kultura irisgarriak izatea helburu, proposamen artistikoak antolatzen ditu edo haietan lankidetzan aritzen da estatuko eta nazioarteko ekitaldietan.

Gertu Kulturari buruz

Programari atxikitzen zaizkion kultura-ekipamenduek prezio sinbolikoan eskura jartzen dizkiete beren programazioa eta ohiko ordutegiak gizarte-erakundeei eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak. Gizarte-erakundeek gozatu nahi dituzten esperientzia kulturalak aukeratzeko eskubidea dute eta, beraz, programazioaren edukieraren % 2 gutxienez eta taldeko sarrerak eskatzeko denbora-tarte bat bermatzen zaizkie.

Programazio hori guztia www.gertukultura.org plataforman argitaratzen da, beharrian desberdinak dituzten pertsonentzako irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatuan. Plataformaren bidez, gizarte-erakundeek zuzenean jakinarazten dizkiete kultura-erakundeei esperientziara bertaratuko diren pertsonen premia espezifikoak, esperientzia arrakastatsua izango dela eta irisgarritasun-kate osoa beteko dela bermatzeko.

Gertukultura.org, aldi berean, etengabeko formakuntzako biltegi bat da, irisgarritasunari eta gizarteratzeari buruzko baliabideetarako sarbidea errazten duena, arteen eta kulturaren bidez.

Babesleak / Con el apoyo de:

gertu
kultura
bizkaia

+Info:

Ane Rotaeché

komunikazioa.gipuzkoa@gertukultura.org

601 922 572

www.gertukultura.org

Babesleak / Con el apoyo de:

gertu
kultura inklusiorako
atea



bbk 

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Bilbao